

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Behin betiko onespena ematea 2/2023 kreditu gehigarriaren espedienteari

Bat etorri Toki Ogasunak arautzen dituen Legeak 150. artikuluan xedatutakoarekin, eta ez denez inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu kreditu gehigarriaren 2/2023 espedienteari hasierako onspena eman zion erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onetsita geratzen da, era honetan:

AURREKONTU APLIKAZIOA	ZENBATEKOA
942.421.001 – Mendialdeko Kuadrilla	1.700,00
454.600.000 – Bideak	12.000,00
342.211.001 – Kiroldegiko mantentze lanak	7.200,00
GUZTIRA	20.900,00

Zenbateko hori honako baliabide hauen bidez finantzatuko da, eta espediente parekatuta eta defizit gabe geratuko da:

DIRU SARREREN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
870.01	DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	20.900,00
GUZTIRA		20.900,00

Udal honetako kreditu gehigarria behin betiko onesten duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, zuzenean, administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Lagran, 2023ko abenduaren 28a

Alkate-lehendakaria
URTZI GAINZARAIN GONZÁLEZ DE DURANA